

Alfredo Tamayo Aiestaran

Deustuko Unibertsitateko filosofia irakaslea

## Sakratuaren itzulera

■ Soziologo onenen ustez, gure garaiko giro izpiritualak antitetikoki diren bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, sekularizazioa, are laizismoa bera ere; bestetik, harri-garria bada ere, sakratuaren, erlijiosoaren itzulera.

Jakina denez, ilustrazioarekin batera hasi zen Europan Elizaren eta kristautasunaren arteko urruntze progresiboa, baita humanismo erradikalaren baieztapena ere; azken hau Feuerbachekin iritsi zen bere gailurrenako batera, honako hau esan zuenean hain zuzen ere: «Gizakia jainko bat da gizakia-erentzat». Nietzschek Europako historian bakana den fenomeno hori konstarazi nahi izan zuen «Jaungoikoa hil da» esan zuenean, esaldiaren benetako egilea Heine poeta izan bazen ere. XIX. mendean zehar iraun zuen joera ateo hau indartsu sartu zen gure gizaldian, ateismo marxista-leninista-ren, psikoanalitiko freudaren, neopositibista logiko-aren, existenzialista sartrearen itxura hartuz. Gizaldiaren erditik aurrera, indarra ari da hartzen erlijiozkotasunaren ausentzia edo ukapena agertzeko beste era bat, postmoderno izenda genezakeena. Ez zaio batera axola transzendentearekin zerikusia duen oro. Dirudenez, Jaungoikoa da goeneko ez da arazo. Norbera finitutasunean paratzen da, jarrera hori justifikatzeko inolako oinarri ideologikorik bilatu gabe, aurreko urteetan ez bezala.

Baina, esan dugunez, gizaldiak aurrera egin ahala sentsibilitate berri bat sortu da transzendentearekiko harremanari buruz, eta, horrela, aurre egin dio abangoardiako hainbat teologoren diagnostikoari. Besteak beste, Tillich-enari, gure garaia «sinbolo hautsien arao» dela esan baitzuen; baita, gerraosteko urteetan gizateriaren aro erlijiosoaren amaieraz eta kristautasun ez-erlijioso bat izateko beharraz idatzi zituen eskutitzez esker, jarraitzaile ugari izan zituen Bonhoeffer artzain protestante martiriaren diagnostikoari ere. Jainkoak itzultzen ari dira. Sinboligo erlijioso modan dago. Sakratua berpizten ari da, eta gizartearen esparruak eskatzen. Egia bihurtzen ari da Toynbee eta Spengler-ek egingako iragarpena, hau da, Erromatar inperioaren gainbeheran bezala, mendearen amaieran erlijio agerpeideak ugalduta egingo direla.

Nolakoa da Europan eta Amerikan zabaltzen ari den eta talde askok sakratua den orenen aurrean

Gizaldiak aurrera egin ahala sentsibilitate berri bat sortu da transzendentearekiko harremanari buruz, eta, horrela, aurre egin dio abangoardiako hainbat teologoren diagnostikoari

ere bizitza sexualaz, dibortzioaz eta eutanasiar emandakoei, kasurik egin gabe bizi direnak ere (Eliza Katolikoan batik bat). «Goiokoei nahi dutena esan dezakete, nik neure kontzientzia daukat» esaldia ohikoa da talde kritiko hauetan. Bigarrenik, erlijioaren berri hau talde txikiena da, beren burua katolikozat jo edo ez, kristautzat jo edo jo gabe. Ziur aski, erakunde erlijioso handietan eskaintzen ez dieten berotasuna eta aitormena lortzeko beharrendo onorioa da. Era berean, horregatik da egungo sekten garaia, kristauak edo ez, ongileak edo suntuistak, mendebaldekoak edo ekialdekoak. Mendearen amaieran sortzen ari den erlijioaren honen hirugarren ezaugarria da lehentasuna ematen diola sentimenduzko eta esperientziakoa. Dogmak bigarren mailako eginkizuna betetzen du. Kontua sentitzea da, sakratuaren esperientzia egitea, misterioa bizipen bidez hurbiltzea. Horregatik sortu da halako jakinmina ekialdeko hainbat teoriari buruz, absolutuarekiko enpatiaz, samedo edo satori-ra iristeko bidearen hastapenez baitihardute.

Ziur aski, erakunde erlijioso handi hauek, beren tradizio, autoritate doktrinal eta moral, ordezkari aparatatu eta guzti, ez dira epe laburrean desagertuko. Oso ahalak bada ere, iraun egingo dute. Baina Jesus Nazaretetako eta beronen mezua bizitzarako funtsezko erreferentziatzat hartzen dituztenek, ez dute oharkabean pasatzen utzi behar sakratua itzultzeko joera berri hau. Interesa agertu behar dugu, aztertu, gogoeta sakona egin. Gogoan izanik Karl Rahner-en kontsigna jakintsua: «Jesus Nazaretetako aldarrikatu in die Zeit hinein», hau da, denboran sarraraziz. ■

Erederakizkoan izulia

Txilladegi



### Inkestak

Ezin hemen zehazki aztertuko. Baina prentsak egun hauetan jakin erazi duenez, abertzaletasuna ez omen dago gure herritarren kezka nagusien artean.

Bortzeria, bai; eta lan-eskasia ere bai. Garbikiago esanda: abertzaletok gutxiengo gara herri honetan. Gehiengo pozik omen dago autonomia bitzaile honetan. *Mayoría abertzale* famatu hori, mitoa da. Hemen espainiaritasuna da nagusi: errejonalismoa, bestalde, ez baita *España mota baten* aldekoa izatea besterik.

Hots, garaia da gauza batzuk gogorarazteko. 1. Abertzaletasuna ez da inoiz izan orain bezain sendoa. Ez hauteskunde mailan bakarrik. Hemerroteka apur bat egitea aski.

2. Helburu abertzalea (nazio-askapen jorana) ez da inoiz izan gaur bezain fina eta osoa.

3. PNVA ez da indar abertzalea orain dela 80 urte. Eta orain, oportunistak mota guztiez itoa, are gutxiago. Nahiz, hau bai, alderdikide mordo bat (gutxiengo, esan behar da) abertzalea izan.

4. Azkeneko hamabost urte honetan agintaritzaren postu giltzarrietan PSOEko anti-euskaldun nabarmenak behin eta berriz egotea ez da kalte larririk gabe gauzatu. Buesak, Recalde, eta beste anitzek ez dute denbora galdtu. Ahal zuten guztia egin dute abertzaletasuna birrintzeko.

Baina herri hau esnatu egin da jadamik. Eta hemendik aurrera ez du inork ez ezerk bere helburutik aidenduko.

J.R. Etxebarria



### Maccarthysmo berria

Ezaguna da McCarthy senatore estatubatuarak 50eko hamarkadan bultzaturiko sorgin-ehiza, intelektual kritikoen sarraskirako atxakia modura erabilirikoa, eta askatasunaren aurkako eraso bortitza izan zena. Ideiengatik diskriminazioa instituzionalizatu zuen jokamolde hura Estatu Batuetako historiaren une ilunenetakotzat daukate gaur egun.

Lehenengo astean, nire adiskidea den unibertsitateko irakasle batek Euskal Herriko unibertsitateetan bizi den maccarthysmo berria salatu zuen, izan ere, gaur egun eta hemen, gure herrian kokaturik dauden unibertsitateetan, pertsonak diskriminaturik baitaude beren ideiegatik. Maccarthysmo berri honetan, intelektual asko sorgin-ehiza horren aldeko sumisioan lerratu dira, artikulu kolektiboen eta manifestuen bidez, ideologia independentistaren diskriminazioa aldarrikaturik, dugu ordenamendu juridikoa pentsa daitezkeen eskubide eta askatasun guztien bermatzaile dela adierazirik, eta horrela uste ez duten guztiak unibertsitatean baztertzeko eduki behar diela esanik. Intelektual organikoak dira, zinez.

Sinets lezadazue. Intelektual organikoen autoritate morala lau pezetako ogerlekoa edo azteken zaldieria bezain faltua da. Boterearen aldeko agerpenak autoritate moral oro deusezten baltu.

## L A P H I T Z A

